



4.



GIDA PRAKTIKOAK:
erosketa publiko arduratsua

GIZARTE- -ZERBITZUEN KONTRATAZIOA



GIDA PRAKTIKOAK
erosketa publiko arduratsua

**GIZARTE-
-ZERBITZUEN
KONTRATAZIOA**

Argitalpen hau Eusko Jaurlaritzako Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak eta Bizkaiko Foru Aldundiak kofinantzatutako “*Merkatu Soziala, Erosketa Publiko arduratsua eta Kontsumo arduratsua*” proiektuaren barruan dago



Gida praktikoa: erosketa publiko arduratsua
4. Gizarte-zerbitzuen kontratazioa

Egilea: Santiago Lesmes Zabalegui

ISBN:

Lege-gordailua:

Diseinua eta maketazioa: Labox Marketing y Comunicación

Itzulpena: Éditra S.C.

Inprimaketa: Eusko Printing Service S.L.

REAS Euskadi

Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea

Red de Economía Alternativa y Solidaria

EKONOPOLO · Ekonomia Sozial eta Solidarioko Poloa

Harrobi Plaza 4, 2a · 48003 Bilbo · Tel.: 944 160 566

reaseuskadi@reaseuskadi.net · @REASEuskadi

www.reaseuskadi.eus



Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin 4.0 (CC BY-NC-SA 4.0)

Lan hau nahi bezala kopian, banatu eta zabaldu daiteke, egilea aipatu eta xede ez-komertziale-tarako erabiliz gero. Lan hau aldatuz gero edo lan honetatik abiatuta besterik sortuz gero, honek daukan lizentzia berarekin baino ezin izango da banatu.

Lizentzia osoa: <https://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/4.0>.

Edukia

| | |
|--|-----------|
| AURKEZPENA | 05 |
| 1. GIZARTE-ZERBITZUEN KATEGORIZAZIO JURIDIKOA | 06 |
| Kontratu publikoak eta itun publikoak | 06 |
| Kontratazio Publiko Arduratsua: legezko betebeharra | 08 |
| 2. KONTRATUAREN OBJEKTUA ETA KONTRATAZIO ESPEDIENTEA | 10 |
| Kontratuaren objektua | 10 |
| Bete beharreko premiak eta espedientea justifikatzea | 12 |
| Kontratua sortetan banatzea | 13 |
| 3. KAUDIMEN TEKNIKO SOZIALA | 16 |
| 4. KONTRATU ERRESERBATUAK | 18 |
| Enplegu zentro berezientzat eta laneratze enpresentzat erreserbatutako kontratuak | 18 |
| Ekonomia sozialeko entitate eta enpresentzat erreserbatutako kontratuak | 21 |
| 5. ESLEIPEN IRIZPIDEAK | 25 |
| 6. KONTRATUA EGIKARITZEKO BALDINTZA BEREZIAK | 31 |
| 7. KONTROLATZEKO ETA EGIAZTATZEKO SISTEMAK | 34 |
| 8. ITUN SOZIALAK | 36 |

Aurkezpena

Gida honen xedea da gizarte-zerbitzuen kontratazio publikoan irizpide sozialak sar daitezen proposatzea eta erraztea.

Gure ustez, Administrazio publikoek kalitatezko prestazioa burutu dezaketen entitateak eta enpresak ez ezik, gizarte-kohesioari, elkartasunari, genero berdintasunari, gizarteratze eta laneratzeari, pertsona eta kolektibo zaurgarrien arretari eta parte-hartzeari, enpleguaren kalitateari, lurraldearen garapenari eta ingurumenari balio erantsia ere ekar diezaioketenak kontratatu behar dituzte.

Baieztapen orokor hau are nabariagoa da gizarte-zerbitzuei eta pertsonen arretarako zerbitzuei buruz ari garenean. Zerbitzu hauek tradizionalki irabazi asmorik gabeko eta ekonomia sozialeko entitateek gauzatu izan dituzte, esperientzia zabalarekin, konpromiso sendoarekin eta lantalde gaitu eta profesionalekin. Hala ere, zerbitzu hauek hornitzeko orduan irabazi asmorik gabeko entitateen eta askotariko zerbitzuak eskaintzen dituzten merkataritza-sozietateen eskaintzak elkarrekin bizi dira eta lehia, kasu batzuetan, oso desorekatuta dago. Eskaintza onena ezin da hautatu prezio baxuenean oinarrituta. Kalitatea eta hartzaileei emango zaien zerbitzu ona gailendu behar dira.

Ondorioz, Administrazio publikoek, beren gizarte-zerbitzuak kontratatzeko orduan, gizarte- edo ingurumen-erantzukizuneko irizpideak sar ditzaten proposatzen dugu; izan ere, gida honetan zehaztuko dugun moduan, irizpide horiek txertatzea legezkoa da erabat eta berme osoarekin egin daiteke. Lan hori errazteko, prozedura arautu bat, azterketa juridiko bat eta klausula tekniko, objektibo eta egiaztagarriak aurkeztu nahi ditugu.

Proposamenek irizpide etikoak, sozialak, ingurumenekoak eta erantzukizun sozialekoak txertatzea proposatzen dute, irizpide horiek edozein Administrazio publikoren kontratazio-prozeduraren fase edo klausula desberdinetan sartuz, eskema honen arabera:

1. Gizarte-zerbitzuen kontratuen kategorizazio juridikoa.
2. Kontratuaren objektua. Bete beharreko premiak eta espedienteak justifikatzea. Kontratua sortetan banatzea.
3. Kaudimen tekniko soziala.
4. Kontratu erreserbatuak.
5. Esleipen irizpideak.
6. Kontratua egikaritzeko baldintza bereziak.
7. Itun sozialak.

1. Gizarte-zerbitzuen kategorizazio juridikoa

Kontratu publikoak eta itun publikoak

Kontratu publikoei buruz hitz egin aurretik, distantzia hartu behar dugu eta perspektibarekin ikusi gizarte-zerbitzu bat emateko dauden modu desberdinak.

Orokorrean, **zuzeneko kudeaketari** buruz hitz egin behar dugu lehendabizi. Eredu honetan, Administrazio publikoek, bere kabuz eta bere bitartekoekin, titulartasun publikoko zerbitzu bat ematen dute. Eta, gero, **zeharkako kudeaketari** buruz, zerbitzua-ren prestazioa enpresa edo entitate pribatu bati uzten zaionean.

Zeharkako kudeaketak, berriz, modalitate desberdinak har ditzake esleipenari eta araubide juridikoari dagokionez, eta horietatik kontratu publikoetan eta itun publikoetan jarriko dugu arreta.

Itun publikoak ospatzeko aukera Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/24/EB Zuzentaraua, 2014ko otsailaren 26koa, kontratazio publikoari buruzkoa, baietsi ondoren onartu zen. Zuzentarau honetan figura hau aitortzen da (114. kontuan hartuzkoa): "Estatu kideek eta zerbitzu publikoek orain ere askatasuna izango dute beren kabuz zerbitzu horiek emateko edo gizarte-zerbitzuak halako moduz antolatu ahal izango dituzte, non ez den beharrezkoa izango kontratu publikorik egitea; esate baterako, zerbitzu horien finantzatze soilaz edo botere adjudikatzaileak aurrez finkatutako baldintzak betetzen dituzten operadore ekonomiko guztiei lizentziak edo baimenak emanez, mugarik edo kuotarik gabe, baldin eta sistema horrek behar adinako publikotasuna bermatzen badu eta gardentasun-printzipioa eta diskriminazio-ezaren printzipioa betetzen baditu".

Ondorioz, Zuzentaruaren transposizioa egin zenean, eta 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, onartu zenean, aukera hau azpimarratu zen berrogeita bederatzigarren xedapen gehigarrian eta 11.6 artikuluan. (Kanpoan utzitako bestelako negozio eta kontratuak). Gida honen azken atalean itun sozialei buruz hitz egingo dugu xehetasun osoz.

Hortaz, zerbitzuak esleitu eta emateko Administrazio publikoek, alde batetik, itun pu-

blikoaren figura erabil dezakete eta, bestetik, **kontratu publikoen** figura tradizionala. Baina kontratazio publikoaren esparru hertsian ere, gizarte-zerbitzuen esleipenak berezitasunak dituela azpimarratu behar dugu, eta honako hauek dira garrantzitsuenak:

- 2014/24 Zuzentarauaren arabera, gizarte-zerbitzuen kontratazioa Erkidegoaren aplikazio-atalasetik kanpo geratzen da 750.000 eurotik beherakoa bada (4.d artikulua). Gainera, adierazi egiten du gizarte-zerbitzuen esleipenak kontuan hartu behar dituela bereziki kalitate eta jasangarritasun irizpideak (76.2 artikulua) eta gizarte-zerbitzuen esleipenean irabazi asmorik gabeko eta ekonomia sozialeko entitateei parte-hartzea erreserbatu ahalko zaiela (77. artikulua).
- Bere aldetik, 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuenak, hainbat berezitasun ezartzen ditu gizarte-zerbitzuentzat, eta horrela hirugarren sektoreko entitateentzat zalantzarik gabe mesedegarria den araubidea antolatzen du:
 1. Errepikatu egiten du 750.000 eurotik beherako balio zenbatetsia duten gizarte-zerbitzuen kontratuak Erkidegoaren aplikazio-atalasetik kanpo geratzen direla (22.1.c artikulua).
 2. Gizarte-zerbitzuak esleitzean irabazi asmorik gabeko eta ekonomia sozialeko entitateei erreserba egiteko ahalmena ematen du (48. XG).
 3. Etekinak berriro inbertitzea edota delako gai sozialean ibilbide eta esperientzia espezifikoak egiaztatzea kaudimen tekniko edo profesionaleko betekizun gisa zehazteko aukera ezartzen da (90.3 eta 65.1 artikulua).
 4. Litzitazio-prozedura negoziatua aplikatzeko kasu bezala honako gizarte-zerbitzuak aipatzen ditu: pertsonak arreta sozialaren ingurunean errotzea beren ezaugarri erabakigarrietako bat dutenak, lehendik zerbitzu horren onuradun ziren pertsonen arreta ematen jarraitzeko helburuarekin (167.f artikulua).
 5. Gizarte-zerbitzuen esleipenean behin betiko bermea eratzeko salbuespena berariaz aurreikusten da (107.1 artikulua).
 6. Azkenik, berrogeita zazpigarren xedapen gehigarrian izaera sozialeko zerbitzu-kontratuei aplikatu ahal zaizkien printzipioei buruz hitz egiten du:
 - “[...] kontratazio-organismoek fase guztietan zainduko dute zerbitzuen kalitatea, jarraitutasuna, irisgarritasuna, lorgarritasuna, eskuragarritasuna eta exhaustibotasuna bermatzen dela, bai eta erabiltzaile-kategoria bakoitzaren beharrezkoak –talde kaltetu eta ahulen beharrezkoak barne–, zerbitzuetako erabiltzaileen inplikazioa eta zerbitzu-ematearen berrikuntza ere.

Halaber, xedapen gehigarri honek aipagai dituen kontratuak adjudikatze-ko irizpideak ezartzerakoan, kontratazio-organoak honako alderdi hauek jarri ahalko ditu erreferentzia gisa: kontratuari atxikitako langileek bereziki kaltetutako sektoreentzako zerbitzuak edo antzeko izaera duten zerbitzuak 145. artikuluan ezarritako moduan ematen daukaten esperientzia; ematen dituzten zerbitzuak hobetzen lortutako etekinak berriro inbertitzea, eta erabiltzaileek parte hartzeko mekanismoak ezartzea, bai eta haien informaziorako eta orientaziorako mekanismoak ere.”

Kontratazio Publiko Arduratsua: legezko betebeharra

Gizarte-zerbitzuen kontratuen eremuko berariazko xedapenez gain, SPKLk esparru oso zabala sortzen du kontratu horien esleipenean irizpide sozialak sartzeko, eta hala, gida honetan kontratu erreserbatuei, kaudimen teknikoari, esleipen irizpideei edo egikaritze-baldintza bereziei buruz arituko gara. Baina, horretaz gain, kontuan hartu behar da SPKLk xedapen efektuarekin eta argi eta garbi adierazten duela kontratu publiko guztiek erantzukizun sozialeko eta ingurumen-erantzukizuneko irizpideak izan behar dituztela.

1. artikulua. Xedea eta zertarakoa.

3. Kontratazio publiko orotan, zeharkako eta aginduzko eran, irizpide sozial eta ingurumenekoak sartuko dira, kontratuaren objektuarekin zerikusia duten bitartean, sinetsita haiek sartzeko kalitatea-prezioa erlazio hobea emango duela kontratu-prestazioan, bai eta efizientzia handiagoa eta hobea ere funts publikoen erabileran. Halaber, enpresa txiki eta ertainen eta ekonomia sozialeko enpresen kontratazio publikorako sarbidea erraztuko da.

Kontratuen lege berriarekin paradigma aldaketa nabarmena da, klausula sozial eta ingurumenekoak legezkoak diren ala ez erabakitzeke edozein eztabaida juridiko edo doktrinal zentzugabekoa baita aurrerantzean. Izan ere, indarrean sartu zenetik, SPKLren 1.3 artikulua urratzeagatik legez kanpokoa dena zera da: irizpide sozialak eta ingurumenekoak txertatu gabe kontratatzea.

Beraz, jarraian garatuko ditugun proposamenei buruzko kontratu publikoak lizitatzeko eta esleitzeko borondatea eta betebeharra gorpuztuko dituzte, kontratu publikoen araudiko aginduen arabera. Xedapen hori, gainera, SPKLren 28.2 artikuluekin indartuta geratzen:

28. artikulua. Kontratuaren premia eta egokitasuna, eta efizientzia kontratazioan.

2. Sektore publikoko erakundeek efizientzia eta erabakitako baldintzak betetzen direla begiratuko dute kontratazio publikoko prozesuak gauzatzeko orduan, izapideak ahalik eta lasterren egiten lagunduko dute, kontratazio publikoaren prozeduretan alderdi positibo gisa hartuko dituzte kontsiderazio sozialak, ingurumenekoak eta berrikuntzakoak, eta enpresa txiki eta ertainek parte hartzea eta informazioa kosturik gabe eskuratzea sustatuko dute, lege honetan aurreikusitako eran.

2. Kontratuaren objektua eta kontratazio espedientea

Kontratuaren objektua

Lehenengo auzia eta proposamena kontratuaren objektuan bertan irizpide etikoak, sozialak eta ingurumenekoak espresuki aipatzea da. Honela, hezurmamitu eta age-rian jartzen da kontratazio-organoaren eta Administrazio publiko kontratugilearen borondatea ez dela mailegu soil bat lizitatu eta kontratatu nahi izatea, gizarte-pres- tazio bat baizik.

Aukera hau guztiz bermatzen du 99.1 artikuluan 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sek- tore Publikoko Kontratuei buruzkoak:

99. artikulua. Kontratuaren objektua.

1. Sektore publikoko kontratuen objektuak zehatza izan behar du. Objektu hori bete nahi diren beharizan edo funtzionaltasun zehatzei erreparatuta definitu ahalko da, kontratuaren objektua konponbide bakar batera mugatu gabe. Be- reziki, kontratatzen diren ondasun, obra edo zerbitzuen efizientzia eta jasanga- rritasuna hobetzen duten berrikuntza teknologiko, sozial edo ingurumenekoak sar daitezkeela uste den kontratuetan definituko da modu horretan.

Araudiak kontratuaren objektua erreferentzia sozial eta ingurumenekoekin definitze- ko aukera zehazten du, eta agintea ere ezartzen du (“definituko da”) kasu batzuetan (“sar daitezkeela uste den”). Gainera, kontratuaren objektuarekiko lotura behin eta be- rriz errepikatzen da SPKL17an, eta horregatik da garrantzitsua.

Ohartarazi behar da indargabetutako 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bete- kizunak ez duela agintzen dagoeneko. Dekretu honek 150.1 artikuluan honakoa exiji- tzen zuen: “esleitzeko irizpideak kontratuaren objektuari zuzenean loturik egon behar dute”. Interpretazio murriztaile hau kontratazio publikoari buruzko 2014/24/EB Zuzen- tarauan, 2014ko otsailaren 26koa, jorratu eta ebatzi zen. Testu hau hitzez hitz txertatu da Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 145.6 artikuluan, eta auzi hau behin betiko konpondu da.

145. artikulua. Kontratua adjudikatzeko baldintzak eta irizpide motak.

6. Honako kasu honetan egongo da loturik adjudikazio-irizpide bat kontratuaren objektuarekin: adjudikazio-irizpidea kontratu horren indarrez eman behar diren prestazioei dagokienean edo haiek integratzen ditue-nean, edozein alderditan eta bizi-zikloko edozein etapatan, horren bar-nean direla honako prozesu hauetan esku hartzen duten faktoreak:

- a)** obren, horniduren edo zerbitzuen produkzio-, prestazio- edo merkaturatze-prozesu zehatzean parte hartzen duten faktoreak, erreferentzia berezia eginez ingurumenaren eta gizartearen ikuspuntutik jasanga-riak eta zuzenak diren produkzio-, prestazio- edo merkaturatze-mo- duei;
- b)** edo bizi-zikloaren beste etapa bateko prozesu zehatzean parte har- tzen duten faktoreak, baita faktore horiek substantzia materialaren zati bat ez direnean ere.

Ondorio juridikoa argia da: lotura kontratuaren prestazio osoarekiko ezarri behar da modu zabalean. Horrela, produktu edo zerbitzu baten garapenaren edozein alderdi, dela diseinua edo ekoizpena, edo merkaturatzea eta eskueran jartzea, kontratuaren objektuarekin lotuta dagoela ulertu behar da, prestazioaren substantzia materialaren parte den ala ez alde batera utzita.

Beraz, eta berriro errepikatuz ez dela beharrezkoa ezta nahitaezkoa ere kontratuaren objektua legalki definitzea alderdi sozial eta ingurumenekoen arabera, kasu zehatz honetan gomendatu egiten dugu balio erantsi nabaria gehitzen duelako:

APLIKATZEKO PROPOSAMENA: KONTRATUAREN OBJEKTUA

(Zerbitzu bat, obra bat edo zerbaiten hornidura, eta abar) kontratatzea, honako irizpide hauek barnean sartuta (egokitza jotzen direnak aukeratu):

- Kalitate soziala; erantzukizun soziala; zehaztasuna pertsonen arretan; enpleguaren kalitatea; emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna; gi- zartratzea eta laneratzea; erantzunkidetasuna; prestazioaren kalitatea eta jarraitutasuna; irisgarritasuna eta eskuragarritasuna; erabiltzaile-kategoria bakoitzaren behar espezifikoaren arreta, bereziki pertsona eta talde ahulen eta zaugarrien beharrak; zerbitzuetako erabiltzaileen inplikazioa eta par- te-hartzea; berrikuntza zerbitzua ematean; kontratuari atxikitako langileen esperientzia eta espezializazioa; lortutako etekinak berriro inbertitzea ema- ten dituzten zerbitzuak hobetzeko.

Bete beharreko premiak eta espedientea justifikatzea

Kontratuaren objektua koherentziaz eta bere eduki arduratsua aipatuz definitzeko interesari eutsiz, gomendagarria da, halaber, kontratazio espedientearen justifikazio memorian, edo bete beharreko premiak zehaztean, labur azaltzea balio erantsia eta gizarte-zerbitzuak irizpide etiko, sozial eta ingurumenekoekin kontratatzeko borondatea, lortu nahi diren helburu zehatzak ere zehaztuz.

Zentzu honetan Sektore Publikoko Kontratuaren azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 28.1 eta 1.1 artikuluetako erreferentziak aipatu behar dira:

28. artikulua. Kontratuaren premia eta egokitasuna, eta efizientzia kontratazioan.

1. Sektore publikoko erakundeek beren helburu instituzionalak betetzeko eta gauzatzeko behar diren kontratuak egingo dituzte, ez besterik. Horretarako, zehatz-mehatz zehaztu behar dira egitekoa den kontratuaren bidez bete nahi diren premien izaera eta hedadura, bai eta kontratuaren objektua eta edukia premia horiei erantzuteko egokiak diren edo ez ere, prozedura ireki edo murriztuaren edo publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez adjudikatzen denean. Horren guztiaren berri jaso beharko da kontratua prestatzeko dokumentazioan, kontratua adjudikatzeko prozedurari ekin aurretik.

1. artikulua. Xedea eta zertarakoa.

1. Lege honen xedea sektore publikoan egiten diren kontratuak arautzea da, eta horren bidez bermatu nahi da, batetik, kontratazioa printzipio hauen arabera gauzatu dela: lizitazioetan parte hartzeko askatasunaren printzipioa, prozeduren gardentasunaren eta publikotasunaren printzipioa eta lehiakideen arteko diskriminaziorik ezaren eta tratu-berdintasunaren printzipioa; bestetik, aurrekontuaren egonkortasunaren eta gastuaren kontrolaren helburuari eta osotasunaren printzipioari lotuta, ziurtatu nahi da obrak egiteko, ondasunak eskuratzeko eta zerbitzuak kontratatzeko diru-funtsak efizientziaz erabiliko direla, dauden premiak aldeztu aurretik definituz, lehia askea babestuz eta ekonomiaren aldetik onuragarriena den eskaintza hautatuz.

Kontratua sortetan banatzea

Azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeak berariaz aipatzen du 99. artikuluan sortak ezartzeko aukera (ia derrigortasuna esan genezake):

99. artikulua. Kontratuaren objektua.

3. Kontratuaren izaerak edo objektuak horretarako bidea ematen duten guztietan, atal guztiak modu independentean gauza daitezela aurreikusi beharko da, sortaka zatituta. Sortak erreserbatu ahalko dira, laugarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera.

Aurrekoa gorabehera, kontratazio-organoak aukera izango du kontratuaren objektua sortaka ez zatitzeko horretarako arrazoi egokiak daudenean –espedientean behar bezala zehaztu beharko dira horiek–, salbu eta obra-emakidako kontratuetan

[...]

4. Kontratazio-organoak, kontratuaren objektua sortaka zatitzen duenean, honako muga hauek ezarri ahalko ditu, betiere espedientean egoki justifikatuta:

a) Hautagai edo lizitatzaille berak eskaintza aurkeztu ahal duen sorta kopurua mugatu ahalko du.

b) Halaber, lizitatzaille bakoitzari adjudikatu ahal zaion sorta kopurua mugatu ahalko du.

[...]

Sortetako bat edo batzuk erreserbatu ahalko dira enplegu-zentro berezietarako edo laneratze-enpresetarako, edo, bestela, kontratu horiek egikaritzeko erreserbako gutxieneko ehuneko bat ezarri ahalko da enplegu babestuko programe-tarako, laugarren xedapen gehigarrian xedatutakoari jarraituz. Halaber, sortak erreserbatu ahalko dira berrogeita zortzigarren xedapen gehigarrian aipatzen diren erakundeentzat, aipatutako xedapenean ezarritako baldintzetan.

Sortak ezartzearen helburua zera da: enpresa gehiago kontratazio publikoan sartzea ahalbidetzea. Kontua da lehia irekitzea eta saihestea lizitazio publikoek enpresa gutxi batzuen eskuetan dagoen oligopolio bat osatzea. Hala, sortak ezartzean, enpresa txiki eta ertainei, tokiko enpresei, Enplegu Zentro Berezi eta Laneratze Enpresei, eta ekonomia sozialeko enpresei gizarte-zerbitzuen kontratu publikoen esleipenean sartzea errazten zaie.

Kontzeptua erraza da: gizarte-zerbitzuen kontratu bakarra lizitatu eta esleitzen bada, gizarte-entitateak merkataritza-enpresa handiekin lehiatuko dira eta aukera gutxi izango dute esleipendun izateko. Aldiz, kontratu hori zatitzen bada eta enpresa bakoitzak sorta batean soilik parte hartu edo esleipendun izan ahal izatea mugatzen bada, aukera gehiago izango ditu.

Arau aldaketa oso esanguratsua da; izan ere, kontratuen aurreko legediarekin ezin zen kontratu publiko bat zatitu, baina 9/2017 Legea indarrean sartu zenetik, posible izateaz gain, ahal den kontratu guztietan sortak egitea izan behar da araua.

Sortak zehazteak dakarren berritasuna eta interesa direla eta, beren alderdi garrantzitsuenak laburbiltzen ditugu:

1. Sortak zehaztea arau orokorra da eta ez salbuespena. Izan ere, obra publikoaren emakida kontratuan salbu, kontratua sortetan zatitzen ez bada, kontratazio-organok behar bezala justifikatu behar du espedientean zergatik ez duen zatitzen edo sortetan banatzena.
2. Legezkoa da sorten tamaina eta kopurua erabakitzea.
3. Legezkoa da enpresa bera aurkeztu daitekeen edo parte hartu dezakeen sorta kopurua mugatzea.
4. Legezkoa da enpresa bera esleipendun izan daitekeen sorta kopurua mugatzea.

Sortak ikuspegi juridiko eta kontzeptual batetik deskribatzeko, esan beharra dago SPKLk ulertzen duela kontratu bat sortetan zatitu behar dela, baldin eta prestazioa hainbat unitate funtzionaletan, kuantitatiboetan edo geografikoetan zatitu badaiteke, edo bereizita erabil, eman edo betearaz daitezkeen zatietan zatitu badaiteke.

Hau da, sortak ezar daitezkeela zatitu daitekeen kontratu-prestazioaren edozein alderdiri dagokionez. Esaterako, **sorta kuantitatiboetan**, kontratu bat zenbatekoen edo artatu beharreko erabiltzaileen arabeko sortetan banatuz. Edo **sorta funtzionaletan**, garbiketa-kontratu bat laneratze eta gizarteratze irizpideen arabera sortetan banatuz, halako moldez non sorta bat egiten den kultura arlorako, beste sorta bat ogasun arlorako, beste sorta bat hirigintza edo kirol arloetarako, eta abar. Kontratua **sorta geografikoetan** ere zatitu daiteke, halako moldez non Administrazio publiko batek aniztasunari erantzuteko zerbitzuak probintzien, auzoen, eskualdeen edo barrutien arabera ematen dituen, mugapen geografiko jakin bakoitzeko gizarte-zerbitzuen kudeaketa sortetan banatu dezakeelarik. Amaitzeko, gizarte-zerbitzuen kontratu bat **prestazioen arabera zatitu daitezkeen sortetan** banatu daiteke; adibidez, komunitate-garapeneko kontratu batean, aisialdia kudeatzeko sorta bat, beste sorta bat etorkinen arretarako; etxerik gabeko pertsonen arretarako beste bat, eta abar.

Gainera, oso garrantzitsua da kontua hartzea, gizarte-zerbitzuen alorrean sorta bat edo batzuk erreserbatu daitezkeela bai Enplegu Zentro Berezientzat eta Laneratze Enpresentzat, bai ekonomia sozialeko enpresa eta entitateentzat. Modu honetan erabat bermatzen da prestazioa ekonomia sozial edo solidarioko entitate bati esleituko zaiola eta mota honetako entitate batek burutuko duela.

3. Kaudimen tekniko soziala

Kaudimen tekniko soziala lizitazio batean parte hartzeko nahitaezko betekizuna da eta gaitasun-azterketa bat dakar berekin, parte hartu nahi duten enpresek kontratua behar bezala egikaritzeko gaikuntza, lantalde, esperientzia eta ibilbide egokia dituzten zehaztuko du. Kaudimena proposamenak ebaluatu baino lehen aztertzen da eta azterketaren emaitza erabakigarria izango da enpresa lizitazioan onartzeko.

Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 74. artikuluan kaudimen teknikoari buruz hitz egiten du orokorrean, baina gizarte-zerbitzuen alor espezifikotan bi agindu jakin interesatzen zaizkigu bereziki; izan ere, SPKLk 90.3 artikuluan zerbitzu- kontratueterako kaudimen teknikoa edo profesionala eskatzeko aukera xedatzen du, eta 65.1 artikulua bere antolamenduari buruzko eta etekinen zertarakoei buruzko betekizunak eskatu ahal direla dio.

65. artikulua. Gaitasun-baldintzak.

1. Espainiako edo atzerriko pertsona natural edo juridikoek izango dute sektore publikoarekin kontratatzeko gaitasuna, baina bakar-bakarrik baldin eta jarduteko gaitasun osoa badute, kontratatzeko debekuren bat jaso ez badute eta ekonomia- eta finantza-kaudimena eta kaudimen tekniko eta profesionala egiaztatzen badute edo, lege honek hala eskatzen duenean, sailkatuta badaude.

Aplikatzekoa den araudiak horrela zehaztu duelako kontratistari zenbait baldintza eskatzen zaizkionean –bere antolamenduari, etekinen zertarakoari, finantzaketa-sistemari edo bestelakoei buruz– kasuko adjudikazio-prozeduran parte hartu ahal izateko, lizitatzailleak egiaztatu egin beharko du betetzen dituela, lehiatu ahal izateko.

90. artikulua. Kaudimen tekniko edota profesionala zerbitzu-kontratuetan.

3. Arlo sozialean, hurbiltasun-zerbitzuak emateko arloan edo antzeko beste batzuetan gaitasun berariazkoak eduki behar badira kontratuaren objektua betetzeko, arlo horietan esperientzia zehatza, ezagutzak eta bitartekoak edukitzea eskatuko da kaudimen tekniko edo profesionaleko baldintza gisa, eta hori artikuluko honen 1. apartatuan ezarritako bitartekoei egiaztatu beharko da.

Bi arau hauek kaudimen tekniko espezifiko irizpide bikoitza ezartzeko aukera ematen dute gizarte-zerbitzuen kontratuarentzat:

- Bata orokorra, adieraziz lizitazioan parte hartzeko enpresaren edo entitatearen antolamenduari buruzko eta etekinen zertarakoei buruzko betekizunak eskatuko direla.
- Partikularra bestea, dagokion kontratuaren objektu zehatzari buruzkoa, adibidez: genero indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta, etxerik gabeko pertsonen gizarte-laguntza, hezkuntza-psikologiako laguntza auzo behartsuetan, mende-kotasuna duten pertsonen arreta, eta abar.

APLIKATZEKO PROPOSAMENA: KAUDIMEN TEKNIKO SOZIALA

Berriaz xedatzen da entitate edo enpresa lizitatuzaileek frogatu beharko dutela, gizarte-zerbitzua (edozein dela) ongi emateko gaitasun-baldintza gisa, antolamendu horizontala dutela eta erabiltzaileek antolamendu horretan parte hartzen dutela, beren etekin guztiak kontratuaren objektuan berriro inbertitzen dituztela edo irabazi asmorik ez dutela, eta haien xedea edo objektu soziala bat datorrela kontratuaren onuradunen edo erabiltzaileen arretarekin.

Gizarte-zerbitzuen prestazio bat denez, eta behar bezala egikaritzeko gaitasun sozial espezifikoak eskatzen dituzenez, gai sozial jakin horretan esperientzia, eza-gutzak eta baliabide teknikoak izatea exijituko da kaudimen tekniko edo profesionaleko betekizun gisa, eta honako modu hauetan frogatu beharko da:

- a. Enpresaren, pertsonaren edo entitatearen esperientzia eta ibilbidea (laneratzearen, generoaren, eta abarren) gaian: azken hiru urteetan egin dituen eta kontratuaren objektuaren antzeko izaera eta zenbatekoa duten zerbitzu edo lan nagusien zerrendaren bidez egiaztatuko da. Horretarako, gutxienez x lan eta gutxienez xxx eurotako fakturazioa frogatu beharko dira.
- b. Lantalde teknikoaren gaikuntza (laneratzearen, mende-kotasuna duten pertsonen arretaren, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunaren, eta abarren) gaian: kontratua egikaritzen espresuki parte hartuko duten langileak aipatu beharko dira. Langile hauek gai horretan duten titulazio, prestakuntza eta esperientzia espezifikoak adierazi beharko dira eta frogatu beharko da gutxienez x pertsonak xxx orduko prestakuntza minimoa dutela gai horretan edota x pertsonak x urteko ibilbide profesionala dutela gai horretan.

4. Kontratu erresebatuak

Enplegu zentro berezientzat eta laneratze enpresentzat erresebatutako kontratuak

SPKLko laugarren xedapen gehigarrian arautzen dira:

Laugarren xedapen gehigarria.

1. Ministro Kontseiluaren edo autonomia-erkidegoetako eta toki-entitateetako organo eskudunen erabakien bidez, gutxienerako erreserba-ehunekoak ezarriko dira zenbait kontratu edo kontratu horietako zenbait sorta adjudikatzeko prozeduran parte hartzeko eskubidea gizarte-ekimeneko enplegu-zentro bereziei eta laneratze-enpresei erresebatzeko, edo gutxienerako erreserba-ehuneko bat ezarriko da kontratu horiek enplegu babestuko programen barruan gauzatzeko, baldin eta enplegu-zentro berezietako, laneratze-enpresetako edo programetako langileen artean desgaitasuna dutenen edo gizartetik baztertuta daudenen ehunekoa enpresa horien erreferentziako araudian aurreikusitakoa bada, eta, betiere, gutxienez 100eko 30 bada. Enplegu-zentro berezi eta laneratze-enpresa horiek arautu zituzten, hurrenez hurren, Desgaitasuna duten Pertsonek Eskubideen eta haien Gizarteratzearen Lege Orokorren testu bateginak (azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua) eta Gizarteratze Enpresen Araubidearen Legeak (abenduarien 13ko 44/2007 Legea), eta lege horietan ezarritako betekizunak bete behar dituzte halakotzat hartuak izateko.

Ministro Kontseiluaren edo autonomia-erkidegoetako eta toki-entitateetako organo eskudunen erabaki horietan gutxienerako baldintzak ezarriko dira aurreko paragrafoan xedatutakoa bete dadin bermatzeko.



Ministro Kontseiluak lege hau indarrean jartzen denetik urtebete igaro baino lehen hartu behar du apartatu honetan aipatutako erabakia. Epe hori amaitutakoan, Ministro Kontseiluak erabakirik hartu ez badu, Estatuko sektore publiko kontratazio-organoek ehuneko 7ko gutxieneko erreserba-ehunekoa aplikatu beharko dute VI. eranskinak jasotako CPV kodeetan bildutako hornidura eta zerbitzuak adjudikatzeko prozeduren guztizko zenbatekoaren gainean, apartatu honetako lehen paragrafoan adierazitako moduan; ehuneko hori ehuneko 10era igoko da lege hau indarrean jarri eta handik lau urtera.

2. Lizitazio-iragarkian, xedapen honen berri eman beharko da.

3. Xedapen gehigarri honek ezarritako erreserba aplikatzen zaien kontratazio-prozeduretan ez da eskatuko lege honen 107. artikuluan aipatzen den behin betiko bermea, salbu eta kontratazio-organoak, aparteko arrazoiengatik, beharrezkotzat jo eta espedientean horrela justifikatzen badu.

Enplegu Zentro Berezientzat eta Laneratze Enpresentzat erreserbatutako kontratuen figura aztertuko dugu, horien alderdi esanguratsuenetako batzuk azpimarratuz eta horiek aplikatzeko eta garatzeko gomendioak ezarriz.

1. **Kontzeptua eta edozein kontratari aplikatzea.** Bere kategorizazio juridikoak berekin dakar gizarte ekimeneko Enplegu Zentro Berezietara eta Laneratze Enpresentara soilik mugatu behar dela parte-hartzea. Eta erreserbatutzat kalifikatu eta lizitatu edo esleitu daiteke prozedura ireki, murriztu edo negoziatu bat, kontratu txiki bat edo esparru-akordio bat. Eta edozein kontratu kalifikatu daiteke erreserbatutzat: obra-kontratua, herri-lanak emateko kontratua, zerbitzu-kontratua, zerbitzu publikoak kudeatzeko-kontratua, hornidura-kontratua, sektore publiko eta pribatuaren arteko lankidetzakontratua eta administrazio-kontratu bereziak. Eta kontratuaren edozein objektu kalifikatu daiteke erreserbatutzat. Eta zortziehun euroko kontratu bat edo laurogei milioi euroko bat erreserbatu daitezke. Laburbilduz, edozein lizitazio edo kontratu erreserbatu daiteke Enplegu Zentro Berezientzat eta Laneratze Enpresentzat.
2. **Prozedura.** Beste edozein kontratu bezala izapidetzen dira. Beraz, prozeduraren hautaketa, publizitatea, izapideak, exijitu daitezkeen kaudimena edo klasifikazioa, edo entitate onuradunen arteko lehia, ez dira batere aldatzen. Kontuan izan behar da lizitazio-iragarkian ohartarazi behar dela eta ezin direla behin-behineko edo behin-betiko bermeak eskatu, espedientean justifikatu beharko diren salbuespeneko kasuetan ez bada.

- 3. Sortak erreserbatzea.** Sortak ezarri eta jarraian sorta horiek erreserbatzeko aukerak bide interesgarri asko irekitzen ditu kontratu erreserbatuen figura errazago eta lizitazio gehiagotan aplikatzeko, eta nabarmen handitzen dizkie entitate hauei kontratu erreserbatu baten esleipendun izateko aukerak. Esaterako: lorezaintzako kontratu batean sortak egiten dira zonen arabera eta sorta horietako batzuk erreserbatutzat kalifikatzen dira. Edo obra-kontratu bat, zeinetan hondakinak kentzeko eta obra garbitzeko sorta erreserbatutzat jotzen den. Edo hondakinak biltzeko kontratu bat, zeinetan paperaren eta kartoiaren sorta erreserbatutzat jotzen den. Edo kopia-denda bateko kontratua eta kontratu horretan zenbateko jakin baten arabera sorta bat egitea.
- 4. Derrigorrezkoa da kontratuak erreserbatzea eta, horretaz gain, betetzen direla bermatzea.** Laugarren xedapen gehigarriak argi ezartzen du, eta aginduz, sektore publikoa osatzen duten entitateek derrigorrez finkatu behar dutela kontratu publikoen gutxienerako erreserba-ehuneko bat, kontratu horiek Enplegu Zentro Bereziei eta Laneratze Enpresei esleitzeko. Eta, gutxienerako ehunekoa ezartzeaz gain, SPKLk dio derrigorrezkoa dela betetzen dela bermatzea: "gutxienerako baldintzak ezarriko dira aurreko paragrafoan xedatutakoa bete dadin bermatzeko".
- 5. Entitate onuradunak. Laneratze Enpresak,** 44/2007 Legearen arabera, abenduaren 13koa, edo 27/2002 Legearen arabera, abenduaren 20koa, Gizarteratze eta Laneratze Enpresak arautzeko legegintza-neurriei buruzkoa. Bai eta **gizarte ekimeneko Enplegu Zentro Bereziak** ere, azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez arautzen direnak. Eta gogorarazten dugu SPKLk, azken xedapenetako hamalaugarrenean, kontzeptua arautzen duela eta bi betekizun ezartzen dituela: zuzenean edo zeharka irabazi asmorik ez duten edo estatutuetan izaera soziala aitortua duten entitate publiko edo pribatuek sustatu behar dituzte eta entitate hauek % 50 baino gehiagoko partaidetza izan behar dute; eta beren burua behartu behar dute beren etekinak guztiz berrinbertitzera desgaitasuna duten pertsonentzat enplegu-aukerak sortzeko eta beren lehiakortasuna eta ekonomia sozialeko jarduera etengabe hobetzeko.

APLIKATZEKO PROPOSAMENA: GIZARTE EKIMENEN ENPLEGU ZENTRO BEREZIENTZAT ETA LANERATZE ENPRESENTZAT ERRESERBATUTAKO KONTRATUAK

Erreserbatutzat kalifikatuko da kontratu publikoen urteko aurrekontu-bolumen totalaren % X, gizarte ekimeneko Enplegu Zentro Bereziei eta Laneratze Enpresei esleitzeko.

Edozein kontratu eta kontratuen edozein objektu erreserbatutzat kalifikatu ahal izango da.

Lizitazio-iragarkian kontratu erreserbatu bat dela aipatu beharko da. +

Prozedura erreserbatuetan ez dira behin-behineko eta behin-betiko bermeak eskatuko, behar bezala arrazoituta salbuespenezko kasuetan ez bada.

4. XGaren arabera erreserbatutako prozeduretan Laneratze Enpresek eta gizarte ekimeneko Enplegu Zentro Bereziek soilik parte hartu ahalko dute, 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuenak, azken xedapenetako hamalagarrenean ezartzen dituen betekizunen arabera.

Kontratu erreserbatuak aplikatzen direla bermatzeko, honako neurri hauek hartu ahalko dira:

- Kontratazioaren urteko plangintzan, kontratuak erreserbatutzat kalifikatzeko egokiak diren aztertu beharko da.
- Sortak ezartzean, sortaren bat edo batzuk erreserbatutzat jotzeko egokitasuna aztertu beharko da.
- Gizarte ekimeneko Enplegu Zentro Bereziek eta Laneratze Enpresek emandako produktuak, zerbitzuak eta obrak hedatzeko ekintzak egingo dira.
- Urtean behin kontratu erreserbatuen kopurua eta beren zenbatekoa bildu, zenbatu eta jakitera emango da.

Ekonomia sozialeko entitate eta enpresentzat erreserbatutako kontratuak

Ekonomia sozialeko enpresa eta entitateei erreserbatutako kontratuak SPKLren beritasun nabarmenetako bat dira, eta berrogeita zortzigarren xedapen gehigarrian arautzen dira:

Berrogeita zortzigarren xedapen gehigarria. Gizarte-, kultura- eta osasun-zerbitzuetako kontratu jakin batzuk antolakunde zehatz batzuentzat uztea.

1. Laugarren xedapen gehigarrian ezarritakoa ezertan kendu gabe, botere adjudikatzaileen kontratazio-organismoek zenbait erakunderi erreserbatu ahalko diete izaera sozial, kultural eta osasuneko zerbitzuen kontratuak lizitzatzeko prozeduretan parte hartzeko eskubidea; hain zuzen ere, honako kode hauen pean

+

IV. eranskinean aipatzen direnetan: CPV 75121000-0, 75122000-7, 75123000-4, 79622000-0, 79624000-4, 79625000-1, 80110000-8, 80300000-7, 80420000-4, 80430000-7, 80511000-9, 80520000-5, 80590000-6, 85000000-9tik 85323000-9ra, 92500000-6, 92600000-7, 98133000-4 eta 98133110-8.

2. 1. apartatuan aipatzen diren erakundeek honako baldintza hauek guztiak bete beharko dituzte:

- a) Haien helburua izatea lehenengo apartatuan aurreikusitako zerbitzuak ematearekin lotutako zerbitzu publikoko misio bat egitea.
- b) Etekinak berriz inbertitzea erakundearen helburua lortzeko; edo etekinak banatzen edo berriz banatzen badira, parte-hartzeari lotutako irizpideen arabera egin beharko da banaketa edo birbanaketa hori.
- c) Kontratua egikaritzen duen erakundearen zuzendaritza- edo jabetza-egiturak langileen jabetzan edo partaidetza-printzipioetan oinarriturik egotea edo langileen, erabiltzaileen edo interesdunen partaidetza aktiboa eskatzen duten printzipioetan.
- d) Kasuan kasuko botere adjudikatzailerak aurreko hiru urteetan dena delako erakunde horri kasuko zerbitzuetarako kontraturik adjudikatu ez izana artikuluko honi jarraituz.

3. Xedapen gehigarri honetan xedatutakoarekin bat adjudikatzen den kontratuaren gehieneko iraupena ez da hiru urtetik gorakoa izango.

4. Lizitazioaren deialdia egiteko baliatzen den iragarkian, xedapen gehigarri hau aipatuko da.

1. **Kontzeptua eta aplikazioa.** Bere kategorizazio juridikoak berekin dakar enpresa-kategoria jakin batzuk bakarrik parte hartu ahalko dutela lizitazioan edo kontratatuak izan, eta gainontzeko tipologia juridikoak kanpoan geratuko dira. Prozedura beste lizitazioena bezalakoa da (onartuak izan ahalko diren enpresa- eta entitate-tipologiak salbu). Eta ekonomia sozialeko enpresentzat sortak erreserbatzeko aukera eta interesa azpimarratzen dugu berriro. Dena den, kasu honetan, ezin da edozein kontratu gorde ekonomia sozialeko enpresa eta entitateentzat:

- Kontratuak gehienez ere hiru urteko iraupena izan behar du eta ekonomia sozialeko erakundea ezin izan da kontratu beraren esleipendun izan erreserba honen beraren bidez, aurreko hiru urteetan.
- Gainera, eta oso garrantzitsua, jarduera-sektorearen araberrako muga dago: gizarte-, kultura- eta osasun-zerbitzuen kontratuen esleipena soilik erreserbatu

daiteke. Eta ez gizarte-, kultura- eta osasun-zerbitzuen edozein kontratu edo kontratuen objektu, baizik eta IV. Eranskineko zerrendan aipatzen diren CPV kodeak dituztenak soilik: 75121000-0, 75122000-7, 75123000-4, 79622000-0, 79624000-4, 79625000-1, 80110000-8, 80300000-7, 80420000-4, 80430000-7, 80511000-9, 80520000-5, 80590000-6, 85000000-9tik 85323000-9ra, 92500000-6, 92600000-7, 98133000-4 eta 98133110-8.

- 2. Entitate onuradunak.** Ez dira SPKLn zehazten; hala ere, argi dago zeintzuk diren entitate onuradunak. Eta ekonomia sozialeko enpresa eta entitateentzat erre-serbatutako kontratuei segurtasun juridikoa eta gardentasuna emateko, beharrezkoa da kontratazio-organoek baldintza-agirietan erreserba honen onuradun izango diren enpresen tipologia zehatzak adieraztea. Horri dagokionez, 5/2011 Legean, martxoaren 29koan, Gizarte Ekonomiari buruzkoan, xedatutakora joko dugu: martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren arabera, elkartzeko eskubidea arautzen duena, edo abenduaren 26ko 50/2002 Legearen arabera, Fundazioei buruzkoa, sortutako elkarteak eta fundazioak, bai eta kooperatibak, mutualitateak, lan sozietateak, Laneratze Enpresak, Enplegu Zentro Bereziak, arrantzaleen kofradiak eta eraldaketako nekazaritza-sozietateak ere, martxoaren 29ko 5/2011 Legean, Gizarte Ekonomiari buruzkoan, xedatutakoaren arabera.
- 3. Borondatezko erreserba.** Ez zaie inolako betebeharririk ezartzen Administrazio publikoei, ezta organo adjudikatzailerei ere, beren kontratuen gutxieneko ehuneko bat ekonomia sozialeko enpresa eta erakundeei erreserbatzeko. Lege-testuak dio "erreserbatu ahalko dira", beraz, hautazko aukera da, borondatezkoa, eta administrazio bakoitzaren irizpidearen menpe dago. Honek ez du oztokatzen aukera hau garatzea, eta ez du eragozten edozein entitate publikok, hala nahi badu, bere burua behartzea beren kontratu publikoen ehuneko bat 48. XGren arabera erreserbatzera eta ekonomia sozialeko enpresa bati esleitzera enpresa honek eman dezan.
- 4. Gizarte-zerbitzuen kontratuei aplikatzea.** Borondatezkoa izan arren, kontuan hartu behar da ekonomia sozialeko entitate eta enpresei gizarte-zerbitzuen kontratuak erreserbatzea egokia dela, eta aukera hau alde batera uzten ari garela probetxurik atera gabe; beraz, hura garatu eta erabiltzearen alde egin daiteke.

APLIKATZEKO PROPOSAMENA: EKONOMIA SOZIALEKO ENPRESA ETA ENTITATEENTZAT ERRESERBATUTAKO KONTRATUAK

48. Xedapen Gehigarriaren arabera erreserbatutzat kalifikatu ahal izango dira ekonomia sozialeko enpresa eta entitateen artean esleitzeko, gizarte-, kultura- eta osasun-zerbitzuen kontratuak, baldin eta haien CPV kodeak Sektore Publiko Kontratuen 9/2017 Legearen VI. Eranskinean aipatutakoekin bat badatoz.

Lizitazio-iragarkian 48. XGaren arabera erreserbatutako kontratu bat dela aipatu beharko da.

48. XGren arabera erreserbatutako prozeduretan honako hauek soilik parte hartu ahal izango dute: martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren arabera, elkartzeko eskubidea arautzen duena, edo abenduaren 26ko 50/2002 Legearen arabera, Fundazioei buruzkoa, sortutako elkarteak eta fundazioak, bai eta kooperatibak, mutualitateak, lan sozietateak, Laneratze Enpresak, Enplegu Zentro Bereziak, arrantzaleen kofradiak eta eraldaketako nekazaritza-sozietateak ere, martxoaren 29ko 5/2011 Legean, Gizarte Ekonomiari buruzkoan, xedatutakoaren arabera.

Ekonomia sozialeko enpresa eta erakundeentzako kontratu erreserbatuak aplikatzea sustatuko da, honako neurri hauen arabera:

- Gizarte-, kultura- eta osasun-zerbitzuen kontratuei buruzko kontratazioaren urteko plangintzan, kontratuak 48. XGren arabera erreserbatutzat kalifikatzeko egokiak diren aztertu beharko da.
- Gizarte-, kultura- eta osasun-zerbitzuen sortak ezartzean, sortaren bat edo batzuk erreserbatutzat jotzeko egokitasuna aztertu beharko da.
- Ekonomia sozialeko enpresa eta entitateentzako kontratuei buruzko prestakuntza- eta sentsibilizazio-ekintzak egingo dira kontratazio-teknikarientzat.
- Urtean behin 48. XGaren arabera erreserbatutako kontratuen kopurua eta beren zenbatekoa bildu, zenbatu eta jakitera emango da.

5. Esleipen irizpideak

Esleipen irizpideak baldintza-agirietan idaztea eta jasotzea funtsezko unea da kontratu publikoen lizitazioan. Izan ere, enpresa lizitatzailleek proposamenak aurkeztu eta kontratazio-organoak irizpide horiek ebaluatu ostean, enpresa esleipenduna zein den erabakiko da eta, ondorioz, zein izango den kontratista eta zein izango den kontratuaren prestazioa bete beharko duena.

SPKLk dio esleipen irizpideek kalitate-prezio onenari erantzun behar diotela, eta “alderdi sozial eta ingurumenekoak izan ahalko dituztela kontratuaren objektuarekin zerikusia duten bitartean”. Beraz, irizpide etikoak, sozialak eta ingurumenekoak txertatzeak legezko berme osoa du eta SPKL17ren 145. artikuluan berariaz aurreikusten da orokorki, baina, horretaz gain, berrogeita zazpigarren xedapen gehigarrian aipatzen diren gizarte-zerbitzuei buruzko agindu espezifikoak hartu behar ditugu kontuan:

145. artikulua. Kontratua adjudikatzeko baldintzak eta irizpide motak.

1. Kontratua adjudikatzeko, adjudikazio-irizpide ugari erabiliko dira, kalitate-prezio erlazio onenean oinarrituta.

Espedientean aldez aurretik justifikatuta, kostu-eraginkortasun erlazio onenari erantzuten dion planteamendu batean oinarritutako irizpideen arabera adjudikatu ahalko dira kontratuak, prezioan edo kostuan oinarrituta; esate baterako, 148. artikulua arabera bizi-zikloaren kostuaren kalkulua erabiliz.



2. Kalitate-prezio erlaziorik onena irizpide ekonomiko eta kualitatiboen arabera ebaluatuko da.

Kalitate-prezio erlazio onena ebaluatzeko kontratazio-organoak ezartzen dituen irizpide kualitatiboek ingurumen-alderdiak edo alderdi sozialak jaso ahalko dituzte, kontratuaren objektuari lotutakoak, artikuluko honen 6. apartatuan ezarritako moduan; honako hauek izan ahalko dira, besteak beste:

1.a Kalitatea –balio teknikoa barne–, ezaugarri estetiko eta funtzionalak, irisgarritasuna, diseinu unibertuala edo erabiltzaile guztientzako diseinua, ezaugarri sozialak, ingurumen arlokoak edo berritzaileak, eta merkaturatzea eta haren baldintzak.

Ingurumen-baldintzak, besteak beste, honako hauei buruzkoak izan ahalko dira: berotegi-efektuko gasen jaulkipena gutxitzea, aurrezpen eta efizientzia energetikoko neurriak erabiltzea eta kontratua egikaritzean iturri berriztagarrietatik datorren energia erabiltzea, eta kontratua egikaritzeak uki ditzakeen baliabide naturalei eustea edo haiek hobetzea.

Kontratuaren ezaugarri sozialak, besteak beste, honako xede hauei buruzkoak izango dira: desgaitasuna duten pertsonen, beharrenda duten pertsonen edo talde ahuletako kideen gizarteratzea sustatzea kontratua egikaritzeko aukeratutako pertsonen artean, eta, oro har, desgaitasuna duten pertsonen edo gizarte-bazterketaren egoeran edo horretarako arriskuan dauden pertsonen gizarteratzea eta laneratzea; enplegu-zentro berezietan eta laneratze-enprekin azpikontratzea; kontratua egikaritzean aplikatzen diren genero-berdintasuneko planak eta, oro har, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna; emakumeen kontratazioa sustatzea; lana, bizitza pertsonala eta familia bateragarri egitea; lan- eta soldata-baldintzak hobetzea; enpleguaren egonkortasuna; kontratua egikaritzeko pertsona kopuru handiena kontratatzea; prestakuntza eta osasunaren eta laneko segurtasunaren babesa; irizpide etikoak eta erantzukizun sozialekoak aplikatzea kontratuaren prestazioan; edo kontratua egikaritzen den bitartean merkataritza ekitatiboan oinarritutako produktuen hornidurari edo erabilerari buruzko irizpideak erabiltzea.

2.a Kontratua egikaritu behar duten eta hari atxikita dauden langileen antolaketa, kualifikazioa eta esperientzia, baldin eta langile horien kalitateak eragin nabarmena izan badezake hobeki egikaritzeko.

Berrogeita zazpigarren xedapen gehigarria. IV. eranskineko zerbitzu-ema-kidako kontratuei eta izaera sozialeko edo sanitarioko edo hezkuntza-izae-rako zerbitzu-kontratuei aplikatu beharreko printzipioak.

Lege honen xedapenen aplikazioa eta besteak beste preskripzio teknikoak, kaudimeneko gutxieneko baldintzak, adjudikazio-irizpideak eta egikaritze-rako baldintza bereziak ezartzeari buruzko xedapenen aplikazioa ezertan ere kendu gabe, IV. eranskinean ageri diren zerbitzu-ema-kidako kontratuak lizitatzeko prozeduretan eta orobat IV. eranskinean jasota dauden arlo sozial, sanitario edo hezkuntzakoaren kontratuak lizitatzekoetan, kontratazio-orga-noek fase guztietan zainduko dute zerbitzuen kalitatea, jarraitutasuna, irisga-rritasuna, lorgarritasuna, eskuragarritasuna eta exhaustibotasuna bermatzen dela, bai eta erabiltzaile-kategoria bakoitzaren beharrian berariazkoak –talde kaltetu eta ahulen beharrianak barne–, zerbitzuetako erabiltzaileen inplika-zioa eta zerbitzu-ematearen berrikuntza ere.

Halaber, xedapen gehigarri honek aipagai dituen kontratuak adjudikatzeko irizpideak ezartzerakoan, kontratazio-organoak honako alderdi hauek jarri ahalko ditu erreferentzia gisa: kontratuari atxikitako langileek bereziki kalte-tutako sektoreentzako zerbitzuak edo antzeko izaera duten zerbitzuak 145. artikuluan ezarritako moduan ematen daukaten esperientzia; ematen dituz-ten zerbitzuak hobetzen lortutako etekinak berriro inbertitzea, eta erabiltzai-leek parte hartzeko mekanismoak ezartzea, bai eta haien informaziorako eta orientaziorako mekanismoak ere.

145. artikulua, azterketa juridiko sakona egin behar izan gabe, esleipenerako irizpi-de sozialen legezotasun osoa zehazten du, eta aurreko arau esparruarekin dagoen edozein eragozpen argitzen du:

- › Esleipen irizpideen artean sar daitezkeen gai sozialen zerrenda zabal eta irekia ezartzen da. Eta bereziki, azpimarratu behar da espresuki aipatzen duela esleipe-nerako irizpide baliodun gisa **irizpide etikoak eta erantzukizun sozialekoak apli-katzea kontratuaren prestazioan**.
- › “Kontratuaren objektuarekiko lotura zuzena” kontzeptua gainditu da, **lotura kon-tratuaren prestazioarekin berarekin ezarri behar delako**. Hala, arauak kontuan hartzen du eta azaltzen du lotura duela (eta baliozkoa dela) kontratu-prestazioan txertatuta dagoen edozein gai, edozein alderditan, bere bizitza-zikloaren edozein etapatan, baita bere substantzia materialaren parte ez direnean ere, ekoizpen

prozesu espezifikoan, edo ingurumen eta gizarte aldetik jasagarriak eta bidezkoak diren ekoizpen- edo merkaturatze-moduei dagokienez.

- “Ekonomiaren aldetik onuragarriena den eskaintza” kontzeptua gainditu da eta “kalitate-prezio erlazio onena” kontzeptuak ordezkatu du. Horrela, aurreko arau-esparruarekin oraindik ere gertatzen ziren interpretazio murriztaileak saihesten dira; izan ere, interpretazio horien arabera, irizpide sozialek traslazio ekonomikoa izan behar zuten eta, diruari dagokionez, eskaintza neurgarri hobea ekarri. Argudiaketa hau atzean utzi da.

Alor praktikoan, arren iradokitzen dugu klausula orokorrak, zehaztugabeak, subjektiboak eta egiaztatzeko zailak edo ezinezkoak ez idaztea. Aldiz, klausulak objektiboak izatea proposatzen dugu.

Cida honen xedea gizarte-zerbitzuen eremu espezifikoa denez, hirugarren sektoreko entitateen ezaugarriekin eta gizarte-zerbitzuen espezifikotasunekin lotutako esleipen irizpideen eredu batzuk proposatuko ditugu.

Bistan dago, osagarri gisa, kontratuaren prestazioari aplikatutako gizarte-erantzukizuneko ezaugarriekin lotutako hainbat klausula sartu ahal izango direla, adibidez: emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-politikak, Laneratze Enpresen azpikontratazioa, pertsona ahul eta zaugarrien enplegua, enpleguaren kalitatea, ingurumen-alderdiak, eta abar. Hala ere, gizarte-zerbitzuen kontratuen irizpide espezifikoetan jarriko dugu arreta, eta bereziki ekonomia sozialeko, irabazi asmorik gabeko ekonomiako eta ekonomia solidarioko entitateen eta enpresen ezaugarri subjektiboak eta gizarte-zerbitzuak emateko moduak kontuan hartzen dituzten irizpideetan.

APLIKATZEKO PROPOSAMENA: ESLEIPEN IRIZPIDEAK

Prestazioaren antolamendua, kudeaketa eta kalitate soziala

Gehenez 15 puntu emango zaizkie proposamen teknikoan ondorengo azpi-irizpideak aplikatzeko konpromisoa hartzen duten enpresei (hautatu behar da):

1. **Kontratua egikarrituko duten langileak, edo prestazioaren erabiltzaileak edo onuradunak modu demokratiko eta parte-hartzailean antolatzeko konpromisoa.** X puntu emango zaizkie beren proposamen teknikoan haien antolamendua langileentzako eta onuradunentzako printzipio demokratiko eta parte-hartzaileetan oinarritzen dela frogatzen duten enpresei, kontratu-prestazioaren esparruan parte hartzeko aurreikusitako sistemak ere zehazten dituztelarik.



2. **Etekinak erakundearen helburu sozialaren arabera berriro inbertitzeko konpromisoa edo, banatzekotan, partaidetza irizpideen arabera egiteko konpromisoa.** X puntu emango zaizkie beren proposamen teknikoan etekinak beren xede sozialen arabera berriro inbertituko dituztela frogatzen duten enpresei, edo, etekin horiek birbanatzen badira, partaidetza-irizpideen arabera egingo dutela frogatzen dutenei, haien langileentzako edo onuradunentzako demokratikoak eta parte-hartzekoak diren printzipioetan oinarrituta, kontratu-prestazioaren esparruan parte hartzeko aurreikusitako sistemak ere zehazten dituztelarik.
3. **Kontratua egikaritzeko lantalde egonkorra baliatzeko konpromisoa.** X puntu emango dira kontratua egikarituko duen lantaldean gutxienez langileen % 80k kontratu mugagabea izateko konpromisoa hartzeagatik. Kontratu mugagabearekin parekatuko dira kooperatibetako, lan-sozietateetako, eta lan elkartuko enpresetako bazkideak.
4. **Kontratua egikarituko duten langileei lan- eta soldata-baldintzak hobetzeko konpromisoa.** X puntu emango zaizkie beren proposamen teknikoan Langileen Estatutuan edo, hala badagokio, sektoreko eta lurraldeko edo enpresako hitzarmen kolektiboan xedatutakoa gainditzen duten lan- eta soldata-baldintzei buruzko hobekuntza espezifikoa zehazten eta kuantifikatzen dituzten enpresei, baldin eta hobekuntza horiek kontratua egikarituko duten langileei aplikatzeko konpromisoa hartzen badute.
5. **Kontratua egikarituko duten langileak prestatzeko konpromisoa.** X puntu emango dira kontratu-prestazioarekin lotutako prestakuntza diseinatzeko eta prestakuntza hori kontratua egikarituko duten langileei emateko konpromisoa hartzeagatik (gutxienez 15 ordu urteko).
6. **Kontratuaren objektuaren gaian langileek duten esperientzia eta ibilbidea.** X puntu emango dira kontratuaren objektu den gizarte-zerbitzu espezifikoan 5 urteko ibilbidea duten x pertsona edukitzeko konpromisoa hartzeagatik.
7. **Kontratuaren objektuaren gaian enpresak duen esperientzia eta ibilbidea.** X puntu emango zaizkie kontratuaren objektu den gizarte-zerbitzu espezifikoan gutxienez 10 urteko esperientzia frogatzen duten enpresa eta entitateei, baldin eta aldi horretan urteko batez besteko fakturazioa gutxienez lizitazio-aurrekontuaren % 50ekoa dela frogatzen badute.
8. **Lan-sareetan parte hartzea.** X puntu emango zaizkie objektuaren kontratuarekin lotura zuzena duten eta komunitatearen eta gizartearen intereseak diren ekintzetan bai entitate publikoekin bai tokiko enpresekin lanki-

+

detza-hitzarmenak izenpetzea dakarten proposamen teknikoei, baldin eta prestazioan eragina badute kontratuaren egikaritze-aldian, edo frogatzen badute azken hiru urteetan modu egonkorrean parte hartu dutela kontratuaren objektu den gizarte-eremuan jarduten duen gizarte-zerbitzuen edo -entitateen sare egonkorren batean.

9. Hedapen- eta sentsibilizazio-ekintza. X puntu emango dira kontratuaren egikaritzeari buruzko emaitza formalak ekartzeko konpromisoarengatik, bai eta kontratuaren objektu nagusia den jarduerari edo zerbitzuari buruzko informazio-jarduerak eta sentsibilizazio sozialeko jarduerak burutzeagatik ere: entitate esleipendunak kontratua egikaritzen den bitartean edo kontratua amaitzean haren garapenari, prestazioari eta ondorioei buruz egingo dituen argitalpenak, azterlanak, jardunaldiak, tailerrak edo komunikazioak.

10. Parte hartzeko metodologia. X puntu emango dira parte hartzen duten pertsona edo eragileen, dagokion eremuko profesionalen, zerbitzuaren erabiltzaile edo onuradunen, eremu horretan jarduten duten boluntarioen edo kontratatutako jarduerarekin edo zerbitzuarekin lotura zuzena duten entitate publiko edo pribatuen kontratua diseinatzean, egikaritzean eta ebaluatzean parte hartzeko, koordinatzeko eta erabakitzekeo metodologiak eta mekanismoak aplikatzeagatik.

6. Kontratua egikaritzeko baldintza bereziak

Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeak arautzen ditu 202. artikuluan:

202. artikulua. Izaera sozial, etiko edo ingurumenekoa duten kontratuak edo bestelako izaera duten kontratuak egikaritzeko baldintza bereziak.

1. Kontratazio-organoek zilegi izango dute baldintza bereziak ezartzea kontratua egikaritzeko, baldin eta baldintza horiek lotuta badaude kontratuaren objektuarekin 145. artikuluan xedatutakoaren ildotik, ez badira zuzenean edo zeharka diskriminatzaileak, Europar Batasuneko zuzenbidearekin bateragarri badira eta hala lizitazio-iragarkian nola baldintza-agirietan adierazten badira.

Betiere, nahitaezkoa izango da hurrengo apartatuan zerrendatzen diren exekuzio-baldintza berezietako bat gutxienez ere ezartzea administrazio-klausula partikularren agirian.

[...]

2. Exekuzio-baldintza horiek, bereziki, kontsiderazio ekonomikoei buruzkoak, berrikuntzari edo ingurumenari lotuak edo kontsiderazio sozialei buruzkoak izan ahalko dira.

Zehazki, honako helburu hauek erdiesteko kontsiderazioak ezarri ahalko dira ingurumen-arloan: berotegi-efektuko gasen igorpenak murriztea –horrekin Ekonomia Iraunkorrari buruzko martxoaren 4ko 2/2011 Legearen 88. artikuluan ezarritako helburua betetzen lagunduko da–; kontratua egikarituta ukiturik gerta daitezkeen ingurumen-balioak mantentzea edo hobetzea; uraren kudeaketa jasangarriagoa izatea; energia berriztagarrien erabilera sustatzea; produktu-birziklatzea eta ontzi berrerabilgarrien erabilera indartzea, edo solteko produktu-banaketari eta ekoizpen ekologikoari bultzada ematea.

Kontsiderazio sozialak nahiz enpleguari buruzkoak, besteak beste, honako helburu hauetakoren batekin ezarri ahalko dira: desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioan aitorturiko eskubideak gauzatzea; legeria nazionalak exijitzen duen baino desgaitu kopuru handiagoa kontratatzea; lan-merkatuan txertatzeko zailtasun bereziak dauzkaten pertsonen enplegua sustatzea laneratze-enpresen bitartez, batez ere desgaitasuna duten edo gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonena; merkatu horretan gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ezabatzea, lanean gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzen duten neurrien apli-

+

kazioa erraztuz; emakumeek lan-merkatuan parte-hartze handiagoa izan dezaten erraztea, bai eta lanaren eta familiaren uztartzea erraztea ere; langabezia borrokatzea, batez ere gazteena, emakumeena eta iraupen luzekoa; lantokian prestakuntza eman dadin sustatzea; lantokian segurtasuna eta osasunaren babesa bermatzea, bai eta aplikatu beharreko hitzarmen kolektibo sektorialak eta lurralde-mailakoak betetzen direla bermatzea ere; laneko istripuak saihesteko neurriak hartzea; Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu 145. artikuluan definitzen den enplegu-estrategia koordinatua aipatuz ezartzen diren bestelako helburu batzuk; edo oinarrizko lan-eskubideen errespetua bermatzea ekoizpen-katean zehar, Lanaren Nazioarteko Erakundearen oinarrizko konbentzioak bete daitezela exijituz, barnean harturik garapen-bidean dauden herrialdeetako ekoizle txikiei mesede egitearen aldeko kontsiderazioak, haiekin aldekoak dituzten merkataritza-harremanak edukitzekoak, nola baitira ekoizleei gutxienezko prezio bat ordaintzea eta sari bat ematea edo merkataritza-kate osoan gardentasun eta trazabilitate handiagoa egotea.

3. Baldintza-agiriekin zigorak ezarri ahalko dituzte, 192. artikuluan 1. apartatuan aurreikusitakoaren arabera, kontratua egikaritzeko baldintza bereziak urratzen direnerako, edo kontratuko funtsezko betebehartza jo ahalko du baldintza bereziok betetzea, 211. artikuluan f) letran ezarritako ondorioetarako. Baldintza horiek ez betetzea ez bada kontratua suntsiarazteko kausatzat tipifikatzen, ez-betetze hori arau-hauste larritzat jo ahalko da baldintza-agirietan, erregelamenduz zehaztutako moduan, 71. artikuluan 2. apartatuko c) letran ezarritako ondorioetarako.

4. Kontratuaren parte diren exekuzio-baldintza berezi guztiak orobat exijituko zaizkie kontratua egikaritzeko parte hartzen duten azpikontrata guztiei.

Egikaritze-baldintza bereziei buruzko azterketa egingo dugu labur-labur ikuspegi juridiko eta praktiko batetik:

- › Izaera soziala, etikoa eta ingurumekoa duten kontratuak egikaritzeko baldintza bereziak txertatzeko aukerak eta legezkotasunak ez dute inolako eragozpen juridikorik onartzen, eta SPKLk berariaz nabarmentzen eta babesten ditu.
- › Kontratua egikaritzeko baldintza bereziak enpresa lizitatzailerik guztiek proposamenak aurkeztean inplizituki beren gain hartzen dituzten **benetako betebeharrak** dira, eta enpresa esleipendunak nahitaez bete beharko ditu kontratua emateko unean.

- › Esleipen irizpideekin gertatzen den bezala, SPKLk **gaiaren arabera zerrenda luze eta eredugarria** eskaintzen du, zabaldu eta moldatu daitekeena.
- › Berriz ere aipatzen da egikaritze-baldintza bereziek **"kontratuaren objektuari lotuta egon behar dutela, 145. artikuluan xedatutakoaren ildotik"**. Hau da, ez da kontratuaren objektuarekin lotura zuzena eskatzen; aitzitik, kontratuaren prestazioarekin berarekin lotura izan behar du..
- › Nabarmendu behar da **nahitaez adierazi behar dela, gutxienez, egikaritze-baldintza berezi bat**.
- › Nahitaezkoa dela kontuan hartuta, **zuhurtasun- eta progresibitate-irizpideen arabera aplikatzea** aholkatzen dugu, baldintza-agirietan kontratuaren ezaugarriei eta merkatuan dagoen eskaintzari dagokienez neurritz kanpoko egikaritze-baldintza berezirik sar ez dadin. Eta gehiegikeria kritikatu daitekeen bezala, motz geratzea ere ez litzateke logikoa.
- › **Kontratua egikaritzeko baldintza bereziak (nahitaez bete beharrekoak) eta esleipen irizpideak (borondatez onartzekoak) bateragarriak eta guztiz sinergikoak dira**. Kontua ez da beti batzuen edo besteen artean aukeratzea, baizik eta kasu batzuetan biak sartzea komenigarria izango dela. Adibidez, behartu egin behar da (egikaritze-baldintza) kontratua egikaritzeko desgaitasuna duen pertsona bat kontratatzea, eta baloratu behar dira (esleipen irizpidea) desgaitasuna duten bi pertsona edo gehiago kontratatzeko konpromisoa hartzen duten enpresak.
- › Era berean, **gida honetan esleipen irizpide gisa planteatu diren irizpideetako batzuk egikaritze-baldintza berezi gisa sar litezke** kontratazio organoak uste badu alderdi horiek nahitaezkoak izan behar dutela eta ez borondatezkoak. Esaterako, sensibilizazio-ekintzak burutzea derrigorrezkoa izan dadila ezarri ahalko da, edo sektoreko hitzarmen kolektiboa aplikatzea nahitaezkoa izatea eta ez soilik ebaluagarria, edo etekinak berriz inbertitzea derrigorrezko baldintza izan dadila.
- › Azken auzi horri eutsiz, uste dugu ez dela beharrezkoa aurreko puntuan esleipen irizpide gisa planteatutako klausula guztiak berriro errepikatzea; aitzitik, **nahikoa izango da haien edukiak eta idazketak hartzea egikaritze-baldintza berezi (bete-behar) gisa sartzeko, komenigarria dela ikusten denean**.

7. Kontrolatzeko eta egiaztatzeako sistemak

Gure ustez, klausula sozialak betetzen direla egiaztatzeako fasea oso garrantzitsua da kontratazio publiko arduratsuaren prozesu osoan.

Egia da gero eta Administrazio publiko gehiagok klausula sozialak txertatzen dituztela bere baldintza-agirietan, baina egia da ere zati txiki batek baino ez duela egiaztatzen eta frogatzen enpresa esleipendunek klausula horiek behar bezala betetzen ote dituzten.

Zailtasun honetatik abiatuta, kontrolatzeko sistema bat proposatzen dugu, baldintza-agirietan zehaztuko ditugun pautak erraz batzuen bidez. Horrela, mezu bat bidaltzen zaie entitate eta enpresa lizitatzailerei: klausulak modu eraginkorrean bete behar dira eta enpresa kontratistak frogatu beharko du betetzen direla; behar bezala egikaritzen direla egiaztatuko da kontrolatzeko funtzioa berariaz esleituz; eta ez betetzeak ondorio larriak ekarriko ditu.

Ondorioz, baldintza-agirietan kontrolatzeko eta egiaztatzeako sistemari buruzko klausula orokor bat sartzea proposatzen dugu, eta, horretarako, honako idazketa hau proposatzen dugu:

APLIKATZEKO PROPOSAMENA: KONTROLATZEKO ETA BETETZEN DELA FROGATZEKO SISTEMA

1. Enpresa kontratista, kontratua erabat gauzatzearen arduradun bakarra den aldetik, bere gain hartu dituen esleipen irizpide guztiak eta gizarte-arloan kontratua egikaritzeko baldintza berezi guztiak betetzera behartuta dago.
2. Enpresa kontratistak modu eraginkorrean frogatu beharko du kontratua behar bezala eman dela bere proposamen teknikoan hitzartutako esleipen irizpideei dagokienez, bai eta izaera sozial eta ingurumeneko egikaritze-baldintzei dagokienez ere. Horretarako, irizpideak eta baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten frogagiriak aurkeztu beharko ditu dagokion unean.



3. Esleipen irizpideak eta izaera sozialeko eta ingurumeneko egikaritze-baldintza bereziak funtsezko kontratuzko betebehartzat jotzen dira. Horiek ez betetzea oso larritzat joko da, eta, betetzen ez badira, kontratazio-organoak honako aukera hauek izango ditu:
 - › Kontratua suntsiaraztea ez-betetze errudunagatik, eta horrek berekin ekar lezake edozein lizitazio prozedura publikotan lizitatzeko desgaitasuna bi urtez.
 - › Kontratua egikaritzen jarraitzea baina zigor bat ezartzea, kontratazio-organoak larritasunaren arabera kalkulatu beharko duena eta gehienez ere kontratuaren prezioaren % 10era artekoa izan daitekeena.
 - › Kontratuen luzapena ez adostea, enpresa esleipendunak kontratua egikaritzeko baldintza bereziak edo esleipenerako irizpide sozialak larriki bete ez balitu.
4. Kontratuaren arduradunak edo jarraipen-unitateak aurkeztutako dokumentazioa egiaztatu beharko du, eta ebaluatu esleipen irizpideekiko eta kontratistak bere gain hartutako izaera sozialeko egikaritze-baldintza bereziekiko egokitasuna eta adostasuna. Bete ezean, jakinarazi beharko du eta, hala badagokio, zigorrak ezartzeko edo kontratua suntsiarazteko prozedura hastea proposatu beharko du.

8. Itun sozialak

9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuenak, agindu berriak eman ditu pertsonen, gizarte- edo osasun-zerbitzu jakin batzuk emateko aukerari dagokionez:

(Atarikoak)

Bestalde, esan beharra dago zerbitzu publikoek orain ere askatasuna izango dutela beren kabuz zerbitzu-kategoria jakin batzuk emateko; zehazki, pertsonentzako zerbitzu gisa ezagutzen direnak. Horien adibide dira zenbait gizarte- eta osasun-zerbitzu, farmazia-zerbitzuak barne, eta hezkuntza-zerbitzuak. Edo haiek halako moduz antolatu ahal izango dituzte, non ez den beharrezkoa izango kontratu publikorik egitea; esate baterako, zerbitzu horien finantzatze soilaz edo botere adjudikatzailerak aurrez finkatutako baldintzak betetzen dituzten operadore ekonomiko guztiei lizentziak edo baimenak emanez, mugarik edo kuotarik gabe, baldin eta sistema horrek behar adinako publikotasuna bermatzen badu eta gardentasun-printzipioa eta diskriminazio-ezaren printzipioa betetzen baditu.

11. artikulua. Kanpoan utzitako bestelako negozio eta kontratuak.

6. Lege honetatik kanpo geratzen da erakunde pribatuek zerbitzuak ematea, baldin eta zerbitzu-emate hori egiten bada kontratu publikoak egiteko beharrik gabe, besteak beste honako bitarteko hauen bitartez: zerbitzu horien finantzaketa soila, edo botere adjudikatzailerak aurrez finkatutako baldintzak betetzen dituzten erakunde guztiei lizentziak edo baimenak ematea, mugarik eta kuotarik ezarri gabe, baldin eta sistema horrek publikitate nahikoa bermatzen badu eta gardentasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioei egokitzen bazaie.

Berrogeita bederatzigarren xedapen gehigarria. Autonomia-erkidegoen lege-ria, izaera sozialeko zerbitzu publikoak emateko kontratuzkoak ez diren tresnei buruzkoa.

Lege honetan ezarritakoa ez da oztopoa izango autonomia-erkidegoek, esleitura dauzkaten eskumenak baliatuz, legeak eman ditzaten; izan ere, kontratuez bestekoak diren tresnak artikulatu ahalgo dituzte arlo sozialeko beharrianak betetzera bideratutako zerbitzu publikoak emateko.

Interes handikoa denez, itun sozialaren figura erabiltzeko aukera aztertuko dugu, bai eta bere abantailak eta ezaugarriak ere:

1. Kontratuen legeak dio gizarte-zerbitzuak kontratazio publikoaren figurari heldu gabe esleitu eta eman daitezkeela. Beraz, gizarte-zerbitzuei dagozkien hainbat prestazio Administrazio publikoen eta entitate pribatuen artean adostu daitezke harreman hori kontratu publiko baten esparruan kategorizatu behar izan gabe, baizik eta beste tresna juridiko batzuen bitartez. Hau da, ez daude kontratuen legegaren menpe, eta ez da behar kontratu publikoak esleitzeko aurreikusitako prozedurak erabiltzea, ez eta kontratazio publikoaren publizitate edo lehia printzipioen menpe jartzea ere.
2. Prestazio jakin batzuk kontratu publikoen araudiaren menpe ez egoteak edo araudi hori ez aplikatzeak berekin dakar, gizarte-zerbitzuak kudeatzeko, Administrazio publikoek finantzatu (diruz lagundu), lizentziak edo baimenak eman, edo kontzertuak eta hitzarmenak bezalako beste sistema batzuk ezar ditzaketela.
3. Kontratu publikoei buruzko estatuko legediaren erregulazio berriak kontratu publikoen 2014/24/EB Zuzentarauan ezarritakoa ekarri baino ez du egiten:
 - › (6) [...] Gogorarazi behar da estatu kideek askatasun osoa dutela gizarte-zerbitzuen edo beste edozein zerbitzuren prestazioa antolatzeko, hala nola posta-zerbitzuak, ekonomia interes orokorreko zerbitzuak edo ekonomikoak ez diren interes orokorreko zerbitzuak, edo bien konbinazioa. Komeni da argitzea ekonomikoak ez diren interes orokorreko zerbitzuak Zuzentarau honen aplikazio eremutik kanpo geratu behar direla.
 - › (114) Zerbitzu-kategoria jakin batzuek, zehazki pertsonentzako zerbitzu gisa ezaugarritzen diren zerbitzuak, hala nola gizarte-, osasun- eta hezkuntza-zerbitzu batzuek, mugaz gaindiko dimentsio mugatua izaten jarraitzen dute, beren izaera dela eta. Zerbitzu horiek testuinguru berezi batean ematen dira, eta testuinguru hori asko aldatzen da estatu kide batetik bestera, tradizio kultural desberdinak direla eta. Berariazko araubide bat ezarri behar da zerbitzu horiei buruzko kontratu publikoetarako, beste zerbitzu batzuei aplikatzen zaiena baino atalase handiago batekin.
 - › Pertsonentzako zerbitzuek, atalase horretatik beherako balioak badituzte, normalean ez dute interesik beste estatu kide batzuetako hornitzaileentzat, kontrako zantzu zehatzik ez badago behintzat, hala nola Europar Batasunak mugaz gaindiko proiektuak finantzatzea.
 - › [...]Estatu kideek eta zerbitzu publikoek orain ere askatasuna izango dute beren kabuz zerbitzu horiek emateko edo gizarte-zerbitzuak halako moduz antolatu ahal izango dituzte, non ez den beharrezkoa izango kontratu publikorik egitea;

esate baterako, zerbitzu horien finantzatze soilaz edo botere adjudikatzailak aurrez finkatutako baldintzak betetzen dituzten operadore ekonomiko guztiei lizentziak edo baimenak emanez, mugarik edo kuotarik gabe, baldin eta sistema horrek behar adinako publikotasuna bermatzen badu eta gardentasun-printzipioa eta diskriminazio-ezaren printzipioa betetzen baditu.

4. Berrogeita bederatzigarren xedapen gehigarriak, halaber, Espainiako Konstituzioak 148.20) artikuluan zehaztutako eskumenak baliatzea xedatzen du; beraz, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Lege berriaren eta 2014/24/EB Zuzentarau komunitarioaren beraren aurretik, autonomia-erkidego askok ituntze-sistema espezifikoa eta eskusiboak ezarri izan dituzte irabazi asmorik gabeko erakundeentzat.
5. Autonomia-erkidego askok ituntze-sistema zehatz-mehatz arautu dute, eta denek erabaki dute —eta babestu ere bai— irabazi asmorik gabeko eragileek lehentasuna izango dutela gizarte-zerbitzuak esleitzean eta ematean:
 - Aragoi: 1/2016 Lege-Dekretua, pertsonen gizarte- eta osasun-zerbitzuak emateko ekintza itunduari buruzkoa.
 - Nafarroako Foru Erkidegoa: 13/2017 Foru Legea, azaroaren 16koa, osasunaren eta gizarte zerbitzuen arloetako itun sozialak arautzen dituena.
 - Andaluzia: 41/2018 Dekretua, otsailaren 20koa, gizarte-zerbitzuak emateko itun soziala arautzen duena.
 - Valentziako Erkidegoa: 181/2017 Dekretua, azaroaren 17koa, Consell-arena, gizarte ekimeneko entitateek Valentziako Erkidegoan gizarte-zerbitzuak emateko ekintza itundua garatzen duena.
 - Asturiasko Printzerria: Asturiasko Printzerriko 3/2019 Legea, martxoaren 15koa, gizarte-zerbitzuak emateko irabazi asmorik gabeko gizarte ekimeneko entitateekin itundutako ekintzari buruzkoa.
 - Galizia: 8/2016 Legea, uztailaren 8koa, Galiziako Gizarte Zerbitzuen abenduaren 3ko 13/2008 Legea aldatzen duena.
 - Balear Uharteak: 48/2017 Dekretua, urriaren 27koa, itun sozialek bete behar dituzten printzipio orokorrak ezartzen dituena.
 - Murtziako Eskualdea: 10/2018 Dekretua, otsailaren 14koa, Murtziako Eskualdean adinekoen eta desgaitasuna duten pertsonen sektoreetan espezializatutako gizarte-zerbitzuetako itun sozialen araubide juridikoa ezartzen duena.

- › Euskadi: Gizarte-Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legea. Euskadin oraindik ez da itun sozialari buruzko legea lortu, eta geldi dago xede den kontratazio publikoaren aholku batzordearen osoko bilkurak urriaren 10ean emandako 27/2017 Txostenetik: gizarte-zerbitzuen euskal sisteman itun sozialaren araubidea arautzen duen dekretuaren zirriborroa.

6. Itun sozialaren figura aplikatzean, honako alderdi praktiko hauek hartu behar ditugu kontuan:

- › Autonomia-erkidegoek kontratuzkoak ez diren tresnak antola ditzakete izaera sozialeko premiak asebetetzera zuzendutako zerbitzu publikoak emateko.
- › Itun sozialak gizarte-zerbitzuen parte-hartzea edo kudeaketa irabazi asmorik gabeko edota gizarte ekimeneko entitateentzat soilik mugatzeko aukera ematen du.
- › Kontraesana dirudien arren, kontratu publikoen legediak berak (zuzentarauek eta araudi nazionalak) gaitzen du aukera hau, eta behin betiko baliogabetzen ditu gizarte-zerbitzuen edozein prestazio kontratu publikoen legeriaren menpe jarri eta kontratu publikotzat kalifikatu behar izatearen aurkako iritzi juridikoak.
- › Beraz, irabazi asmorik gabeko ekonomiaren eta ekonomia sozial eta solidarioaren entitateek, hala nola elkarteek, fundazioek eta Laneratze Enpresek, eta gizartearen interesekotzat jotzen direnek, hala nola gizarte ekimeneko kooperatibek eta Enplegu Zentro Bereziek, edo antzeko beste batzuek, gizarte-, osasun- edo kultura-zerbitzuak eman ditzakete itunen bidez, kontratazio publikoaren araudiari eta prozedurari men egin behar izan gabe.
- › Azken finean, sistema malguago baten aurrean gaude. Sistema honek egonkorra eta zenbait urtetarako izan daitekeen finantzazio publikoa eman diezaietke irabazi asmorik gabeko edota gizarte ekimeneko ekonomia sozialeko entitateei, eta, horretaz gain, ez dute irabazi asmoa duten merkataritza enpresekin lehiatu behar.
- › Itun sozialaren figura ez da esleipen edo ituntze zuzenarekin nahastu behar; izan ere, itun sozialaren figura arautu duten autonomia-erkidegoek publikitatearen, gardentasunaren eta diskriminazio ezaren printzipioak bermatuz egin dute, kasu oso zehatzetan lehiarik gabeko ituntze zuzena aurreikusten bada ere.
- › Ituntzearen logikak berak eta gizarte-zerbitzuen eta pertsonen arretarako zerbitzuen berezitasunak berekin dakarte zerbitzu hauek ematen dituzten entitateen hautaketa irizpide eta printzipio zehatzetan oinarritu behar dela. Eta ildo horretatik, kontratazio publikoaren eremuan dagoeneko legalak diren esleipen irizpide guztiak ezartzeaz gain, posible da dirulaguntzenak berezkoak diren bes-

te batzuk txertatzea, hala nola, entitateak lurraldean bertan duen esperientzia, parte-hartzea, helburu sozialen sustapena, estatutuen xedeak, sarean egindako lana, jardunbide egokiak, gizarte-berrikuntza, tokiko garapena, arreta osoa, lurraldean ezartzea edo estrategia publikoetara egokitzea.